

EUSKAL TRENBIDE SAREA

IRAGARKIA, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Legorreta-Tolosa tartean, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren plataformaren proiektuko kanpaina geotekniko osagarria kontratatzeke lehiaketa publikoa prozedura irekiz kontratatzeke dena.

29116

Beste Iragarki Ofizial Batzuk**OSASUN SAILA**

IRAGARKIA. 346/07 administrazioarekiko auzi errekurtsioan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketenen hirugarrenentzako deia.

29118

Pribatuen Iragarkiak**EJIE, SA**

LEHIAKETA. Iragarkia, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren informazio-sistema eraiki, migratu eta martxan jartzeko kontratua esleitzeko dena (044/2007 espedientea).

29119

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****6788**

12/2007 LEGEA, azaroaren 16koa, Autonomia Erkidegoko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 125. eta 126. artikulua aldatzeko.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

EUSKAL TRENBIDE SAREA

ANUNCIO para la contratación, por el procedimiento abierto, de concurso público relativo a la contratación de la campaña geotécnica complementaria del Proyecto de plataforma de la nueva Red Ferroviaria de Euskadi, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, Tramo Legorreta-Tolosa.

29116

Otros Anuncios Oficiales**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 346/07.

29118

Anuncios Particulares**EJIE, S.A.**

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato para la Construcción, Migración y Puesta en Marcha del Sistema de Información de la Dirección de Juego y Espectáculos del Gobierno Vasco (Expediente n.º 044/2007).

29119

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****6788**

LEY 12/2007, de 16 de noviembre, sobre modificación de los artículos 125 y 126 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de disposiciones legales vigentes sobre régimen presupuestario de la Comunidad Autónoma.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley.

12/2007 Legea, azaroaren 16koa, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 125. eta 126. artikulua aldatzeko

ZIOEN AZALPENEA

Aurrekontuen Legeak aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrera bidaliko duela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren likidazioa onesteko lege-proiektua.

Alabaina, epe bakarra 1/1994 Legegintzako Dekretuko 125.1 artikuluan ezartzen da, hurrengo ekitaldiko uztailaren 31ko epea ezartzen baitu soilik likidaziorri buruzko dokumentazioa egiteko.

Herri Kontuen Epaitegiaren iritziz, likidazioaren fiskalizazioa atzeratzearen arrazoiak da Jaurlaritzak agortu egiten duela lehen aipatutako epea eta, hala, eragotzi egiten duela epaitegiak urteko kontuak garaiz fiskalizatzea, taldeek aurrekontua aztertzerakoan aurreko ekitaldiko likidazio jadanik fiskalizatua ere aztertu ahal ez zuten.

Atzerapen hori gertatzen da Jaurlaritzak uste duelako agortu egin behar duela Aurrekontuen Legeak ematen dion epea (uztailaren 31) eta gero bidali Kontuen Epaitegira (4 hilabete); beraz, urrirako ez dago fiskalizatuta.

Izan ere, joan den 2006ko otsailean agerraldia egin zuen Kontuen Epaitegiko lehendakariak 2003 ekitaldiko fiskalizazioa azaltzeko.

Bestalde, legeak ez du eperik ezartzen Eusko Jaurlaritzak aurrekontuen likidazioaren lege-proiektua Legebiltzarrera bidaltzeko, eta, horren ondorioz, aurkeztu eta onetsitako azken likidazioa 1997ko ekitaldiari buruzkoa izan zen, ekainaren 29ko 5/2000 Legearen birtatez, eta orain arte Legebiltzarrak ez du likidazioaren beste ezein lege-proiekturik jaso.

Beraz, hamar urte joan dira ia, Ibarretxe jauna Autonomia Erkidegoko lehendakaria denetik, aurrekontuen likidaziorik onetsi gabe.

Legearen xedea betetzeko, hau da, Legebiltzarrak aurrekontua egiteko beharrezko eta fiskalizatutako informazioa edukitzeko, behartu egin behar da Jaurlaritza Kontuen Epaitegiari aurreko ekitaldiari buruzko likidazioa fiskalizazio hori egin ahal izateko nahikoa denboraz bidaltzeko.

Aspaldi jakinarazi zion Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Legebiltzarrari beharrezkoa zela erreforma hori egitea Aurrekontuen Legearen beraren xedea eta eskakizuna bete ahal izateko.

Ley 12/2007, de 16 de noviembre, sobre modificación de los artículos 125 y 126 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de Disposiciones Legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de la Comunidad Autónoma

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La ley presupuestaria prevé que el Gobierno Vasco remitirá al Parlamento el proyecto de ley para aprobar la liquidación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma fiscalizados por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Sin embargo, el único plazo es el establecido en el artículo 125.1 del Decreto Legislativo 1/1994, que solamente señala hasta el 31 de julio del ejercicio siguiente como plazo para elaborar la documentación relativa a la liquidación.

El retraso en la fiscalización de las liquidaciones se produce, a juicio del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, porque el Gobierno Vasco agota el plazo anteriormente señalado e impide con ello que el propio tribunal pueda fiscalizar en tiempo las cuentas anuales, de forma que los grupos puedan examinar el presupuesto con la liquidación del ejercicio anterior ya fiscalizada.

Este retraso se produce porque el Gobierno estima que debe agotar el plazo que le concede la ley presupuestaria (31 de julio), y luego remitirlo al Tribunal de Cuentas (4 meses), por lo que no está fiscalizado para el mes de octubre.

De hecho, el pasado mes de febrero de 2006 compareció la presidenta del Tribunal de Cuentas para explicar la fiscalización del ejercicio 2003.

Por otro lado, la ley no establece un plazo para que el Gobierno Vasco remita al Parlamento el proyecto de ley de liquidación de los presupuestos, lo que ha dado lugar a que la última liquidación presentada y aprobada fue la correspondiente al ejercicio de 1997 mediante la Ley 5/2000, de 29 de junio, sin que hasta la fecha este Parlamento haya recibido ningún otro proyecto de ley de liquidación.

Es decir, durante casi diez años, desde que el señor Ibarretxe es lehendakari de la Comunidad Autónoma tiene sin aprobar las liquidaciones de sus presupuestos.

Para cumplir la finalidad de la ley, es decir, que el Parlamento cuente con información necesaria y fiscalizada para elaborar el presupuesto, se hace necesario obligar al Gobierno a remitir al Tribunal de Cuentas la liquidación del ejercicio anterior con la suficiente antelación para que el tribunal pueda efectuar dicha fiscalización.

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas hace tiempo que ha informado a este Parlamento de la necesidad de esta reforma para poder cumplir la finalidad y exigencia de la propia ley presupuestaria.

1. artikulua.– Honela geldituko da 1/9994 Legegintzako Dekretuko 125.1 artikulua:

«Aurrekontu Orokorren likidazioari buruzko dokumentazioa hurrengo ekitaldiko maiatzaren 31 baino lehen izango dute egina Ekonomia eta Ogasun Saileko zerbitzuek».

2. artikulua.– Honela geldituko da 1/9994 Legegintzako Dekretuko 126.1 artikulua:

«1.– Jaurlaritzak bi hilabeteko epea izango du, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ekitaldiaren fiskalizazio-txostena eman ondoren, Legebiltzarrari bidaltzeko Aurrekontu Orokorren likidazioari buruzko dokumentazioa, kasuan kasu eskatuko den Autonomia Erkidegoko finantzazko eta ondarezko egoeraren gaineko alderdiei buruzko informazioarekin batera, lege-proiektu baten bidez eztabaidatzeko eta onesteko».

AZKEN XEDAPENA

«Lege hau argitaratzen den egunean jarriko da indarrean».

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 22a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6789

204/2007 DEKRETUA, azaroaren 20koa, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua arautzen duena.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren eginkizunak eta osaera aldatzen du (kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduari buruzko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen bidez sortu zen).

Euskadiko Unibertsitate Kontseilua euskal unibertsitate-sistemaren koordinazio-organoa da eta unibertsitateen gaitan Eusko Jaurlaritzak duen kontsulta- eta aholku-organoa. Organo horrek informazioa trukatzeko

Artículo 1.– El artículo 125.1 del Decreto Legislativo 1/1994 queda redactado del siguiente modo:

«La documentación relativa a la liquidación de los Presupuestos Generales será elaborada por los servicios correspondientes del Departamento de Economía y Hacienda con anterioridad al 31 de mayo del ejercicio siguiente».

Artículo 2.– El artículo 126.1 del Decreto Legislativo 1/1994 queda redactado del siguiente modo:

«1.– La documentación relativa a la liquidación de los Presupuestos Generales, junto con aquella otra información referente a otros aspectos de la situación financiera y patrimonial de la Comunidad Autónoma que se exija en su caso, será remitida por el Gobierno al Parlamento para su debate y aprobación, mediante el correspondiente proyecto de ley, en el plazo de dos meses desde la emisión del correspondiente informe de fiscalización por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas».

DISPOSICIÓN FINAL

«Esta ley entrará en vigor el día de su publicación».

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de noviembre de 2007.

EL Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6789

DECRETO 204/2007, de 20 de noviembre, por el que se regula el Consejo Vasco de Universidades.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, modifica las funciones y la composición del Consejo Vasco de Universidades que fue creado por la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Consejo Vasco de Universidades se perfila como el órgano de coordinación del sistema universitario vasco y de consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco en materia de universidades. Es el órgano a través del